

Jeanne (Manech)

GURE KOCHEFINA

Comédie en trois actes

Personnages: Mañech.....Pachkalina..hunen emaztea.

Kochefina: alhaba eta Luicha 8 urthe.

Janamarie auzoa eta Maiena hunen alhaba.

Ier acte:

Pachka: Nun daude gure jendeak?? Ni hain aspaldia sartua eta bertzeak ez ageri oraino!! Ez zuen balio hola erna nadin!! Cho!! iduritzen zaut urhats bat aditzen dutala!

('Mañech sartzen da)

Pachka: Ah! hor zirea? Manech! azkenean!!

Mañech: Ba,ori,ego niz ichtant bat solasean Piarres sasiorrekinekin.

Pachka: Untsa ichtant luzea!!

Manech: Zer nauzu!solasean hasi eta,denbora laster johan!!

Pachka: Zueri ere,solasean laket!!Badut beldurra emaztek dugun mihi luze fama eta gizonek izaita,!!

Manech: Ez duzue ez,bakarrik fama,ez zarezte segur,motelak!!

Pachka: Eta baliatzen zauku....Zer diozu ori,egungo besta hortaz??

Manech: Besta + gaitza!!Zer pilota partida ederra!!ez da usu ikusten holakorik!!

Pachka: Nork behar zuen erran kenka batez,gure gaztek joanen zutela!!

Manech: Zuk errazu!!Izan dira 18 eta 35!!Orduan,Kayet gizagaizoa ari zen,eskuin eta ezker desafioa:3000 1000 liberari!!

Pachka: Ez duzu topatu??

Manech: Ez! ez zaut pariatzen laket,zeren irabazteak,galtzea baitu ondoan.

Pachka: Alta balioko zuen papergno baten hirriskatzea,hiruen irabazteko!! eta aldi huntan,irabaziko zinuen!!Ni gizon banintzholakoetan + bero nindaike!!

Manech: Sinhesten zaitut! zer parea eginen zinuen zinnén kayetekin! Etxe zimenduak laster kordokatuak zinuzten!!

Pachka: Gizaizua! uste ez nuena gertatu zaio!!

Manech: Erran ditake! 45 etan berdindu dira eta azkenean,gurek johan dute pondu batez!Chalbati esker!!Zer besoaren jabe den!!

Pachka: Irabazi ahal du zerbeit!!Akabatzeko,esku zarta hek!!

Manech: Kayeti min egin diote nesküt nik uste...barnea ilhun zuken, moltsa inharrosirik!!

Pachka: Ba!aldi huntan,buruuan hatz egin du;ez ahal da Janamari kontent!

Manech: Arrazoinekin!!holako emazte langile eta burutakoak mereziko zuen senhar funts gehiochognokoa!!

Pachka: Beharrik harek baitu biena!!

Manech: Ba!etche emazte gaitza da,haurren altchatzeko maneratik haste!

Pachka: Ene iduriko sobera larderiatzen ditu!!

Manech: Eta ene iduriko,haurrak behar dira atchiki...Zu,ahulegi zira! gaina hartua dauzute!

Pachka: Gaichuak!!hain dira maitagarriak!! Ohartu-zirea partida ondoan eman dituzten dantza heietan,gure Kochefina zoin den dantzaria?

Manech: Horiek ikasiko ditu ba,lana baino segurrago!!

Pachka: Denek nausi zuten!!

Manech: Ama guzier,berea zaiote dantzariena!

Pachka: Gurea,nausi aise!jaun mera,jaun kontseilaria,eta jaun erretera ere,hari zauden beha,choratuak!!!hain arinki ari zen nun, iiduri baizuen ainhera bat!!

✓ Magne: Zaude ichilik hortik!emaztekia!Jaun horiek oro,gureari bezala bertzeri ere behatzen zuten.Hasteko nik,ez dut deus kambiorik esagutu kausitu!

Pachka: Sinhesten zitut aise!zu zerbeiti ohartzeko,behar litaizke mendiak beren tokietarik aldaratu,bainan ni,enean nago!

✓ Manech: Eta Kochefina nun dago??Oraikotz sartua izan behar zuen!! Janamari sartzen da!

Janama: Gure Maiena hemen dea?

Pachka: Zu zinena Janamari? Ez,ez dira oraino jinak;zato,zato aitzina! Orai ari ginen egungo besta eder hortaz.

Janama: Ez zen ez,denentzat ederra! gure kasko bero horrek,bere parioekin,denak andeatzen dauzkit!

Pachka: Zer nahi duzu!Ochtian Maflechek erraiten azautan,galtzeak irabaztea du ondoan. Irabazi balu,denak eder izanen ziren!!

Jana: Ez!zeren bizio horrek,ichtanbat goiti beheiti,galtzen du.Zonbat ez da ikusi,hastean,irabazi pochi batek gostu emanik,azkenean, berak eta familiak errekan ezartzen!!

✓ Manech: Egia duzu!Janamari,eta behar luke Kayetek,absolutoki bizio hori utzi! holako gizon huna! ez du bertze estakururik.

Jana: Ez da errech!Den gizon hoberena ere,bizio bat hartzeaz geroz, utz araztea!

✓ Manech: Nehork egitekotz,zuk eginen duzu!

Jana: Ori,gisa batez,atsegir dut egun gauzak hola gertaturik... Erakaspen hori,agian baliatuko zakolakoan!!

Pachka: Erastatu duzia?

Jana: Ez,aski joha da bera,bainan erakutsi diot,holo segituz,norat eremanen gaituen ere denak eta zer etsemplu deitoragarria emaiten duen haurreri..

Pachka: Ez duzu heietaz arranguratzekorik!!

Jana: Ez,jainko maiteari esker, Egin ahalak guziak egiten ditut heien untsa aljghatzeko eta orai artino segurik,untsa johan dire.

Pachka: Ene arabera,tinkichko atchikitzen ditutzu.

Jana: Ez,plegu onak behar eman behar dire hastetik,eta gero,berek, beren baitarik,segitzen dute hartu saile.hura.

✓ Manech: Egia haundiak horiek oro;bainan,zoaztu zu,ehuni horien kompreniazterat!!

Pachka: Gaztek behar dute beren gaztetasunaz gozatu eta baliatu.

Jana: Hobeki eginen dute luzara,gidari oner segitza segituz....bainan, nun daude? Oraikotz sartuak behar ziren!!

Pachka: Daudela gostuan!!

Jana: Eni ez zaut laket ilhuntzeraz geroz,kampoan izan diten...Ordu arte ere badute jostatzeko denbora.

Pachka: Zer dantza politik eman dituzten!!

Jana: Dantzak ba!! ezniz dantzaz kechu!!

Pachka: Nik,biziki maite dut gazte horien ikustea,chorien pare;iduri zangoz lurra ez dutela hunkitzen!!zoin zautzun dantzariena?

Jana: Denak berdintsu ...Zer mutua du,pochi bat goiti beheiti?

Pachka: Eni iduritzen zaut gure Kochefina zutela nagusi!!

Jana: Ori,ene ondoan,Zipabarneko Echtfana ari zen,haren alhabak denak erhausten zituela!

Pachka: Zer? Guéachinak? Hura zitzautan tontoena!!

Jana: Eta hala hala Dominika Harrichilkok erraiten zuen,primak eman baluzte,harenak juanen zuela lehena,dudarik batere gabe!!

× Manech: Nik erraiten nuena: bakotchar berea ederrena!

Jana: Bainan juhan niz,engoitik Maiena etchean dut!bihar artéo!

Pachka eta Manech!: Jainkoak nahi badu!

Athea idekitzearekin,Kochefina eta Maiena sattzen dir:

Pachka: Beha,nun heldu diren!

Jana: Nun egon zizte hoin berant?

Kochefi: Etche Perderat udaren pasatzerat heldu diren jaun anderekin.

Pachka: Kompagnia haundian zinezten!!

Maiena: Nahi ginuzten deliberazi Pariserat sehi joaiterat:bat heien e
etcherat eta bértea adichkide batzuatarat.

Jana: Ez duzue onhartu araz?

Maiena: Nik segurik ez;badakit etchean ene beharra badela.

Jana: Ah hola segurik!

Pachka: Eta hik Kochefina.?

Kochefi: Nik,ba! zeren abantail guziak izanen baititut.

× Manech:Zer? hi Pariserat? ez din itchurarrik!!!Eta guk zer egin behar
dugu hemen??

Pachka: Alon,alon! ez zaitela hola kecha!gizona! zurekin,ez daiteke
elheka ere ar!!

Jana: Bertzenaz ere,ez da oraino joana! behar bada,ikusiko du gure
Maienak bezala,baduzuela zuek ere horren beharra.

Kochefi: Ez naiz oraino joana,bainan partitzen gira egun zortzi.

Maiena: Badakin Kochefina,oraino gibelerat egiten ahal dun!!kasu arras
deliberatu gabe aitzin!!

Jana: Orai,gu goazin. Eginzkitzue pentsaketa hoberenak!!
(Janamari eta Maiena atheratzen dira.)

× Manech: Zer ditun hichtorio horiek?

Kochefi: Ez dira batere hichtoriak!-eta zuk ere,aditu eta zer
eskaintza egiten dautaten, onhartuko duzu.

× Manech: Eta hemengo lanak,nork éginen ditu?

Pachka: Utzazu bada,mintzatzerat!!

Kochefi: Zuek gazteczarezte oraino,eta Janbattitt ere ari da goiti.

Pachka: Egia dukManech! guri da hemen bermatzea eta gure buruak
ahantzirik,haurren onaren bilhatzea.

Kochefi: Eta nik,handik lagunduko ziuztet.Hemen ez dezaket p̄pilik
aldara;han aldiz,sos ederrak baztertuko ditut. Emanen dautate
bizia eta 35000 libera ilhabetean.

Pachka: 35000 libera!!zer dirua!!aise behar du onhartu,Manech!!

× Manech: Eta soldata horren irabazteko,zer egin beharko dun?Jakin
duna aski untsa lanean?

Kochefi: Aise!! han denak erretchak dira!!ez da hemen bezala,su pizterik
ez boketa egunean,ithurrian bortizki artzerik;ez eta ere,
eskalerretan,goiti beheiti akitzerik!! Aski da botoin baten
zapatzea edo itzultzea,eta krak!ez da bakarrik furnegoa pizten,
bainan oraino etchea guzia berotzen da. Bertze botoin bat itzuli
eta,oihal garbitzeko mekanika bera ari da lanean.Beheretik goiti
igaiteko,sartzen da halako etchola ttipi baten barnean eta
hau ere,hurrats bat egin gabe eta berdin jarririk etchola
hartan den alki ttipi batean,johan zira goiti.

× Manech: Zer dira beraz,botoin horien zapatzeko ariko hire hazten eta
35000 liberaren present emaiten hilabethe bakotch? Horiek baizik
baizik ez balira egiteko,egin litzazkene berek,akitu gabe
eta urririk!!

Kochefi: Horiek hola dira! berek erran dautate!!

× Manech: Bazitaken!!Bainan izanen dun botoin itzultzez bertze zerbeit
egiteko.

Kochefi: Eginen dut!

Pachka: Ni agradatzen nuena,jende ezagutuetaratjoaitea. Hauk,aspaldiko urhetan heldu dira hunat udan,hilabete baten pasatzerat eta badakigu gisakoak direla.

Kochefi: Hori da! eta hola,nik ere izanen dut urthe guziez,zien ikusteko plazerra.

Pachka: Bertzalde,horiekin eginez johan,jina,ez zaun pidaia gostako; hori ere,zer abantaila!!Pidaiaik hain baitira kario!!

Kochefi: Eta gisa hortan,ene irabaziez lagunduko ahal ziuztet,tracteur baten erosten.Nik baino zerbitzu hobea eginen du.

Pachka: Zer diezu Mafech?? Ez duguya arrazoin??

X Manech: Baduzue elhe eder andana bat;bainan ni beldur,gathu horrek izanen duela bertze buztanik!!

Pachka: Ez zitela izan bethi gibel,beldur!!

Kochefi: Beharrik ama eta ni,hemen baigira gauzen diren bezala ikusteko ! Oray,johan niz.

X Manech: Norat ari hiz,tenore huntas?

Kochefi: Balerat.

X Manech: Balerat?? Ezchiza aski dantzatua egun? Segur nun Maiena etchean dagola!!

Kochefi: Nahi badu ba,horri laket zaio etche zokoan mutzitzea;ni, alegeragoa nia!

Pachka: Ez hiza lehenik afaiten?

Kochefi: Ez,lagunekin jan behar dut ostatuan.

Pachka: Habil beraz,eta josta hadi ontsa!!

Kochefi: Bihar artio!! (Atheratzen da.)

X Manech: Zer ama ahula!denak onharizen dazkotzu...Baterez nu haurr horren Pariserat joaiteak agradatzen!!Behar dugu gibelatu.

Pachka: Nolakoa ziren!!Ez duzia ikusten zer abantailak izanen ditugun orok??

X Manech: Ez dut erraiten 2I urthe bederen balitu!!Bainan oraino biziki gazte daihor harat juaiteko;doy doya I7 urthe eta zombat okasione mota ez da hor gaindi? Nun & gira zerbeit errekontru tzar gertatzen balitzao??

Pachka: Oraiko gaztek begiak goizik idekitzen dituzte!!Gu,30 urtetan baino argituago dira I9 etan!!

X Manech: Horiek oro hola,nik aise nahiago nuke,hemen,egoiten balitz gurekin!!

Pachka: Zu,mende batez gibeletik zira!!Bethi tun,tun,oinez nahiago duzu erabili,ezik eta otoan edo airez aire! Allon! segi zaite oraiko bisi moldeari. Gure Kochefina aldiz,mende huntakoa da eta hortako deliberatzen du molde berriari segitzea.

X Manech: Bon! ikusiko dugu zer ondorio ekarriko dion!!Agian ona!

Pachka: Ez da dudarik,eta oray,zuk,kabalak arthatzeko artean,nik eginen dut afaria. Haur gaztena kolonian,Kochefina balean,afalduko gira buruz buru,espos berri bagine bezala;ez dea hala Manech??

RIDEAU

Fin du premier acte.

Suite de Kochefina:Bigarren zatia

Pachka: Ene haur gaicho hura ez ageri oraino, eta bada jadanik oren bat eskola akabatua dela!! Nun dago? Zerbeit gertatu othe zaio??
 (Luixha, haurra sartzen da:)

Pachka: Ah! hor hiza Luicha! nun egon haiz orai artio?

Luicha: Eskolan, puni nintzen.

Pachka: Puni? zer eginik?

Luicha: Leitzioneak ez ikasirik.

Pachka: Aski ditin andereak erakustea punitzeko orde! zertako da hura?
 Gaicho ahaugi, haugi hunat, atsaldeko askariaren egiterat. Engoitik
 ordu dun! zer janen dun?

Luicha: Deusik ez, ez niz gose.

Pachka: Gaichoa! Apetitua galdua eta eritua atchikitzen hu han!

Luicha: Baduzia atzo bezala, krema?

Pachka: Segurki! no, beha zan! harran hau, gostuan, leitzioneak eta
 kantoreak bere gisa utzirik. Bichkotcha idorgno hok ere biziki
 onak ditun, ez dea hala??

Luicha: Ba! arras onak.

Pachka: Hola segurik! eta kremagno horrek, zer dio? Beltzaren esne eta koko
 fresko batekin egina ninan hiretzat: gauza sanhoekin!! Ez daun
 kalterik eginen.

Luicha: (chutituz) Oray johan niz kamporat.

Pachka: Ba, habil, on dun aire garbi pochi baten hurrupatzea. No chokolet
 presa bat eta banana hau ere,. Nahi dituna?

Luicha: Horiek ba!!

Pachka: Ahoan, berak hurtuko ditun eta hachkartuko haute! Gaichua!
 Habil eta josta untsa. (Haurra atheratzen da.)

Pachka: Gaicho haurra! bethi puni!! Ageri du andereak ez dela ama!
 bertze bihotzik kluke!! (Mafiech sartzen da.)

Manech: Bakarrik zirea? Nun da Luicha?

Pachka: Igorria dut jostatzerat, bethi lanean, osagarria galdua!!

Manech: Atchiko du izaria!! Anderea arrangura da leitzioneak ez dituela
 ikasten!!

Pachka: Eta hura zertako da? zer luke nahi? lana haurrek egin eta saria
 harek altcha?

Manech: Nolakoa ziren!! bichtan da haurrek ~~eee~~-bere baitarik ere ari
 behar direla! nondik nahi duzu andereak banazka denak berak
 erakuts ditzan?

Pachka: Ari da ari, gaicho haurra, eritua eta apetitua galdua!! Aratsaldekoa
 ere, ez zuen nahi!!

Manech: Aski gosetu eta janen du ba! Orai ere, hemen behar zuen izan bere
 leitzionen ikasten. Segur naiz auzoko Mailuch ari dela. Hori
 ez da puni!

Pachka: Baduzu zer, zure auzoekin; biziki ontsa zautzun Maiena ere ez
 zadin Pariserat johan gure Kochefina bezala eta nork zuen
 arrazoin?

Manech: Ene arabera, Maienak! Zer egin du Kochefinak joanez geroz? Ez
 dut oraino haren balentriarik ikusi!!

Pachka: Zer egin duen? Ez ditutzia irakurtzen igottzen dituen berri
 onak? Johan orduko, tokiz kanbiatu zen eta geroztik, irabazten
 ditu 40.000 libera ilhabethean, estrenak bertzalde. Oray, bi
 urthe han dela! Zer sesak ez dituzke baztertuak!!

- Manech: Bainan hitzeman zauzkun laguntzak!! Ez dire ageri!! Pil bat ez daku igorri! elhe ederrak ba! bainan hek ez dute mobtsa bethetzen. Bertzalde, behar izan dugu mutil ttipi bat hartu Kochefinaren ordain eta haren soldata eta asurantzak karga haundiak dira guretzat. Aldiz auzoan, berak ari dira etcheko etcheko. Hori abantail gaitza.
- Pachka: Jinen denan, Kochefinak nasaiki saristatuko gaitu.
- Manech: Noiz jinen da? Joaitean erran zaukun urthe guziez eginen zuela itzuli bat.. Oray, bi urthe joana dela eta haren lehen bisitaren beha gaude.
- Pachka: Undar lettran erraiten zaukun gutien ustean agertuko dela.
Gauden-beñat Aste huntan berantenaz.
- Manech: Ernatzen ahal da; ortziralean gira.
- Pachka: Badugu oraino biharko eguna eta gaur ere jin ditake.
- Manech: Ikuisko dugu zer abantail ekarriko duen; engoitik, ordu luke!!
- Pachka: Erraiten dautazu izpiritu prisatua dutala; badut beldurra zuk baino hobeki igurikatzen badakitala.
- Manech: Johan niz ene lanetarat; berdin zurekin ez dut sekulan arrazoin. Sararaz zazu haur hora, ikas ditzan leitzioneak.
Manech atheratzen ba
- Pachka: Dagola deskantsatzen! Osagarria lehen!! Egiaren erraiteko, nik ere berantesten hasia dut ba! gure Kochefina eta zoin ikusi nahia!! Nik uste, arras anderetua jinen zaukun hiritik... Behar dut ikusi haur hora ageri denetz... (Athea idekitzearekin:
"Agur Jauna!"
- Kochefi: Ez nuzia ezagutzen, ama!
- Pachka: Hi hiza, Kochefina!! Uste ninan mutiko bat zeka?? Zoin konten si nizan hira ikustea!! (Besarkatzen du.) Ez dakin zoin ikusi nahia hindudan!!... Zer da galtzenmete-hori? galtzen moda??
- Kochefi: Ba! eta hola biziki komodoski niz pidayatzeko.
- Pachka: Zer erranen daunitak ikuisko hilarik??
- Kochefi: Hura, bethi Matusalemen denborako ideyetan dago!! Zu aldiz, zure mendearekin kurritzen zira. Denak, harek baino hobeki ikusten ditutzu. Izpiritu chorrotch eta ideya largoen jabe zira. Inteligenta hots! ni bezala.
- Pachka: Egia dun, eta horiek oro hola, nola hiz?
- Kochefi: Arras untsa, zuek ere ba??
- Pachka: Ba, ba, Jainko maiteari esker.
- Kochefi: Janbattitt eta Luicha, haundituak, nik uste? Nun dire?
- Pachka: Luicha, hor gaindi eta Janbattitt mendian ardiekin.
- Kochefi: Ezagutuko nutea??
- Pachka: Lanik aski!!! Nihaurek ere, kanbiatura kausitzen haut... Iduritzen zautan mehatu hizela!!
- Kochefi: Ez, ez, mehatu... Feriestu!!
- Pachka: Bazitaken ba... No, horra nun den Luicha. Beha Luicha... Ezagutzen duna hau??
- Luicha: Ez!!
- Kochefi: Zer?? Kochefina ez ezagutzen? Jadanik ahantzia nuna??
- Luicha: Uste nuen mutiko bat zela!
- Kochefi: Gaichoaa!! (Emaiten dazko bi pott) - Besarkatzen ari delarik, aita sartzen da:
- Manech: Nor duzue hori??
- Pachka: Hea ezagutuko duzunez?? Beha hunat??

- Manech: Jesus!!! Kochefina?? Pilda hortan??
 Kochefi: Gaicho aita!! Zu, bethi "arriéré" Den gutieneko kanbioari
 lotsa! "Il faut être moderne!!"
- Manech: Hola dea delako moderne? Galtzekin, pipaz, eta ilhe buztan bat
 kaskotik dilindan? Eni, horiek, enuchenkeriak ziazkin... Denak
 araberan baditun, e badun politik!!!
- Kochefi: Denak biziki untsa ditut, haste irabazitik: Bi urthe hotan,
 milion bat baztertu dut.
- Pachka: Zer sosa!! beharrik johan hintzan!!
- Kochefi: Zuk errazu! Hori ere aita, ez zinautan onhartu, eta bizkitartean,
 Eta zuek, egin zinutena trakturra??
- Manech: Zerekin?? Hik igorri lagunza ez dun oraino agertu eta badinat
 lanik aski hire ordain hartu dugun mutilaren pagatzen.
- Pachka: Gizon presatua!! Orai emanen derauku behar ditugun guziak!!
- Kochefi: Oraino igurikatu behar duzue, zeren idabaz arau, plazatzen
 baititut intres ederrean: " à 15%. Gisa hortan, denek abantail
 dugu, kapitalaren umeen egiterat uziea.
- Manech: Ehunarentzat hamabortz? Ni ez nun fida intres haundi horier.
 Kochefi: Ba, zu bethi uzkur eta gibel beldur!! Ageri duzu ez zirela
 sekulan jali zoko huntarik!!
- Manech: Eta nun plazatuak ditun?
- Kochefi: Zaude, behar dauzuet lehenik bertze gauza bat erran... Ezkontzekoa
 niz banko haundi batetako empleatu batekin eta hunek dauzkit
 irabaziak plazatzen.
- Pachka: Zer ezkontza!! Pariseko banko batetako empleatuarekin!!!
- Manech: Zer ika dun gero, gizon gei hori??
- Kochefi: Bizi plantakoa gisa guziez... Bankoetan ez dituzte nola
 nahikoak hartzan!!
- Pachka: Bichtan dun! horrek berak erakustea emaiten du ez duela nor nahi!
- Kochefi: Ez, segur! Eta beha zer erhaztun ederra eman dautan!!
- Pachka: Oh ba! Beha Magnech, gure jaun kontseilariaren emazteak ere,
 hola holakoa du!!
- Manech: Horiek oro hola, nik oraino gaztechkoa kausitzentz dut ezkontzeo,
 I9 urthe doy doya!!
- Kochefi: Ez gira oraino eginen.. Urthe bat bederen, igurikatuko dugu.
 Aski sos bildu behar dugu muntatzeko, egungo egunean, anhitz
 behar baita!!
- Manech: Bon, bon! urthe batez gauza asko gerta zitaken!!
- Kochefi: Erran Luicha, habil Maienaren bilha. Behar diot hari ere ene
 berri haudiaz parthe eman... Nola dire horiek?
- Pachka: Bizi untsa.
- Manech: Denak lanean, osagarrian eta bakean!! hori dun hori, etxeko gostua!!
- Kochefi: Kayet ari dea bethi pariatzen??
- Manech: Yatya!utzia din aspaldi bizio tzar hori. Janamari, emazte gaitza
 dun.. Ezti eztia, denak ezartzen ditin bakočcha bere ozkan.
- Kochefi: Gaicho Maiena!! bizia eremaiten du hemen, plazer bat hartu gabe!!
 Maiena sartzen da eta erraiten: " Hor hiza, Kochefina! azkenean!!
- Kochefi: Kochefina?? JO! ma chère, JO! Parisen, Kochefina, Josette dun eta
 hitz guzien laburtzeko moda baita, JO erraiten zautan!!
- Manech: No, nardatzen nun zuen jestuez!! Johan nun neure lanetarat/
 Aita atheratzen da.

Maiena: Beraz, nola hiz, JO?

Kochefi: Biziki ontsa! ziek ere ba?

Maiena: Gu ere, denak, arras untsa, Jainkoari esker.... Iduritzen zautan mehatu hizala!

Kochefi: La ligne, ma chère!!

Maiena: Arras Parisarra hiz!!

Kochefi: Segurki! eta ez dinat dolurik!! bahaki zer bizia eremaiten dugun han!!

Maiena: Bethi bestan, dudarik gabe?? To! hara ama ere, nun heldu den hire ikusterat.

Kochefi: Agur Janamari!!

Jana: Hor hintzana, Kochefina?

Maiena: Ez da gehiago Kochefina!! Oray, JO da!!

Janama: Zeri so dago?

Maiena: Ez so ez!! JO! Pariseko ~~zena~~ izena du!

Janama: Allo! nola kanbiatu hizan! ez zakinat hemendik kanpo ezagutuko hindutan ere!!

Pachka: Arras hiritartua!! Ez dea hala?

Janama: Hiritartua edo....ez diakinat zer!!

Kochefi: Gaichoak! ziek ez usatuak kanbio berrieri!!

Janama: Eta batere gutiziarike ere, ez!!

Kochefi: Hik ere, eza? Maiena?

Maiena: Ez, ez, ni untsa nun hola hola, nizan tokian. Bertzenaz ere, etchearen segida hartzen dinat Chalbatekin ezkonduz.

Kochefi: Zer? Chalbat pilotariarekin? Zer bizi penatua ereman behar dunan!! " Dans ce trou!"

Maiena: Batere! Ni hemen laketua nun eta oraiko tresna berriek arintzen dinez laborantzako lana. Chalbatek bere irabaziekin erosia erditin denak.

Kochefi: Chacun son goût, ma chère! Ni, hala hala ezkontzekoa nun banko haundi batetako empleatu batekin.

Pachka: Uste duzea!! zer ezkonta!! Erakuts zakone eratzuna.. Ez dea ~~ederra~~ ederra??

Jana eta Maiena: Ba, ba! arras ederra!!

Kochefi: Eta hik, nun dun hiria??

Maiena: Lanen egiteko kendua. Urhea dinat, perla pollit bat erdian.

Kochefi: En or!! nik, platine eta diamant, eta jaun araberakoa... biziki fina. Mutiko pollita eta elheketari ederra.

Pachka: Eta jakintsuna! Pentsa!! Pariseko banko batetan denaz geroz!!

Janama: Ba, ba, horiek oro eder ditun... Nuñ egina dun gero haren ezagutza?

Kochefi: Balean!!! Le coup de foudre, ma chère!!

Maiena: Nork presentatua zaunan?

Kochefi: Nehork!! Joana nindunan ene bi adichkide, Mado eta Lulurekin! Hastean, gure artean ari gintunan dantzan... gero, hori hurbildu eta elgarrez agradatu. Le coup de foudre, ~~me-chère~~ en plein!!

Janama: Zer? bertze funtsik gabe, ezkontzerat apailatu hiza??

Kochefi: Ez ez, erran artio bankoko empleatua zela, ez niz ez deliberatu.

Janama: Fida ditakea arrotz baten erranari??

Kochefi: Haren lagunek ere, eman dauzitate berri hoberenak. Bertzalde, ageri du zer den!! Ikusiko duzunean, agradatuko zira... Hi ere ba, Maiena.

Maiena: Ni kontent nun eneaz.

Kochefi: Ah! ez nezaken truka!!

Maiena: ~~Nik-ere, es!~~ Ez nik ere!!

Kochefi: " D'acc!"

Pachka: Zaudezte beraz" TAC" bakotcha zihaunaz kontent!

- Kochefi: Geroztik, arats guziz johan gitun "en bandecjoyeuse" besta egiterat... théâtre, cinéma, bal, zeren eta, Mado eta Luluri ere, egin arazi baitiote bertze bi jaunen ezagutza.
- Maiena: Zer ditutzie beraz, egunaz irabaziak aratsetan chahutzen?
- Kochefi: Zer aparantzia!! Jaun horiek irabazdun haundiak baitira, heiek pagatzen zaizkune denak!! Ils sont galants, ma chère!!
- Janama: Eta noiz pausatzen zizte? Egunaz lanean eta aratsetan pestan? ez zazuela osagarria gal bederen!!
- Kochefi: Zaudet gusatian, ez girela hemen bezala, argiari lehenka jeikitzen. Bertzalde, badugu astean egun bat gure eskuko. "La vie de Paris!! et c'est épatant!!"
- Maiena: Johan zireztea artetan Eskualdunen etche hartarat?
- Kochefi: Ez, zeren gure gizon geiak ez baitira eskualdunak; gu heier jarraikitzen gitun.
- Janama: Elizako hurratsak bederen atchikitzen ditun??
- Pachka: Nolakoa ziren, Janamari!! Bichtan da!!
- Kochefi: Errazu, oray Maiena ezkontzearekin, ez baituzu Kattinaren beharrik izanen etchean, utzi behar duzu enekin Pariserat. Badut eskualdun plantako baten galdea.
- Janama: Jainkoak begira nezalaene hauek gaztearen hiri lanjeros hortaratuztea!! Nahiago dinat hemen gaindi ezarri jende ezagutuetan?.
- Kochefi: Han, aise gehiago irabaziko du!!
- Pachka: Harri zinaizke, Janamari, bazinaki hunek, zer dirua baztertua duen!!
- Janama: Nahi badu ba, bainan nahiago dut, gutiagé irabazik ere, bichtan atchiki. Nun gindazke arima eta gorputza galtzen balitu??
- Pachka: Zoin moda zaharrekoa ziren!! han ere badira ba, toki onak!!
- Janama: Ba! bainan badaudea? Harat eta, egiten dute nahi dutena!! Hi ere, Kochefina, laster atheratu hintzan "Etche Perdeko" jaun andretarik? Zombat egon hintzan?
- Kochefi: Bi ilhabethe. Toki bat zen!! zoin tinkia?? Maame, bethi gainean, hatsa ere ez zitaken gustian har!! Ganbera heien apartamenduan; arats guziz 9 orenetako ohean!!
- Janama: Horiek oro, biziki untsa!!
- Kochefi: Komentu batean baino hertchikiago!!
- Janama: Ikusten dun? Hor harat johan eta geroz, ez zireztela toki toki gisakoetan egon nahi? Ez ez, ene haurrek, eni hurbil.. Oray, goazen, Maiena, bihar ere, elgar ikusiko baitugu.
- Maiena: Beraz, bihar artio, JO!
- Janama: Eta pauza hadi: Iduritzan zautan badunala beharra. Pasa zazue denek gau on bat.
- Pachka eta Kochefi: Gisa bera!!
- Pachkalin eta Kochefina
- Kochefi: Gaichoak!! zoin "arriérées" diren!!
- Pachka: Hik erran!! Hiru aitaren gisa, ez zakone iduritzan hemendik kampo, deus onik badela!!
- Kochefi: Eta segur niz harri litzatzekela ikusten baluzte han gaindiko gauza choragarriak!! Zer liferentzia, haste gure gizon gaietarik!! Horrena, trunkoa bezain, enea feriesa da.
- Pachka: Chalbat, mutiko ederra dun, bizkitartean!!
- Kochefi: Ez dut erraiten, bainan horren traka eta enearena, ez da arras berdina..ez eta ere, salutatzeko moldea. Horrenak, esku dorpeak bezain, eneak churiak eta finak ditu. Mintzairia, donc?? Eta izena bera!!
- Pachka: Ah, ba! nola deitzen da hire gizon gaia?
- Kochefi: Alain Kervanoé!! Aldiz horrenak.. Chalbat Buztin!! Ikusten duzu??
- Pachka: Aise!!! Egina dun etchekoen ezagutza?

Kochefi: Ez, zeren ez da parisanoa, breton da eta bretania urrun baita, joanen gira behar bada, esposatu eta... Menturaz aintzin, ez dakit chuchen.

Pachka: Eta hunat, noiz jinen da?

Kochefi: Ez oraino, .. Behar ginuke lehenik etchea antolatu.

Pachka: Ez dea etchea gisakoa??

Kochefi: Gaicho ama!! Ikusten bazinitu hor gaindikoak!! Errezebitzeko salha, gambera eder, "salle de bain!".....

Pachka: Nundik eginen ditugu horiek oro?

Kochefi: Nik igorriko dauzuetet, zeren Alainek irabazten baitu haundizki eta segur naiz eneanene utzi nahiko dituela.

Pachka: Gisa hortan eginen dinau zerbeit.

Kochefi: Zombat orenak dira??

Pachka: Zazpiak.

Kochefi: Beraz johan niz, elgarrekin hitz hartuak gira tenore huntas telefonatzea. Ez dut huts egin behar ez dadien grigna, gizagaizoa.

Pachka: Ba, ba, habil eta gibeleratekoan, sar arazan Luicha. Nik arte hortan, usaiaren ez galtzeko, eginen dinat afari on bat.

RIDEAU

HIRUGARREN ZATIA

Pachkalin irakurtzen ari delarik, sartzen da Janamari.

Pachka: Ari ~~eiendunes~~ nintzen Kochefinaren azken lettaren irakurtzen.

Janama: Ahlichkiatu dauzue beraz?

Pachka: Ez, badu ilhabethe bat baino gehiago izana dugula.

Janama: Eta geroztik deuserez?

Pachka: Deusik! eta berantetsia dut!

Janama: Aurteh, ez du bere itzulia egin hemen gaindi??

Pachka: Ez, Dauville deitzen den tokian izan dira hunat jiteko orde.

Janama: Nun da delako Dauville hori??

Pachka: Ez dakit chuchen, bainan itsas hegian da. Hainitz jende haundi eta aberats ibiltzen da udan.

Janama: Ah!

Pachka: Kochefinaren gizon gaia, hetarik baita, harat ereman du berekin. "Congéen pasatzerat "Potretak ere, igorri dauzkute.. Beha?

Janama: Ez nuzke ene haurrak beztimenta hortan edo hobeki erraiteko, beztimenta eskas hortan ikusi nahi!!!

Pachka: Horiek, itsas hegikoak dira... "short" deitzen omen dira.

Janama: Ba, ba! legezko chorta horiek, doy doya dute gorputz kantail bat estaltzen... Noiz dira espos??

Pachka: Ez dakigu oraino chuchen.

Janama: Engoitik, ordu lukete!!

Pachka: Has zaite zu ere, Magnechen gisa!! Ez da karkara hortarik ichiltzen... eta bizkitartean, ez ditake ezkontza hoberik!! Zoazte zuek, gizonen komprenitzerat!!

II

- Janama: Aise! bietarik bat..Hola beti elgarrekin ikustea haino nahio
luke jainko legean planta diten.Ori,badu urthe bat baino
gehiago gure Maiena,ezkondua deka eta oray,familiatua.
- Pachka: Untsa erremetitu da?
- Jana: Arras untsa. Kattina ere,berriz itzulia da bere tokirat.
- Pachka: Laketua,dudarik gabe?
- Janama: Aspaldi! Badu urthe bat han dela.Toki ena du biziki...eta herrian
Usu ikusteko menean. Oray ere,haurra jin delarik,zer
zerbitzua ez dauku egin!!
- Pachka: Bainan hirian,soldata hobea luke!!
- Janama: Eta beharbada,gutia gozten bazter lezake.
- Pachka: Agradamendu gehiago baluke ere...Etchekoer da,beren buruak
ahantzirik,haurren onaren bilhatzea.
- Janama: Haurren on hora,bakotchak gure molderat ikusten dugu. Etcheko
gochotasuna ez dea lehen?
Kochefina sartzen da nigarrez hipaka.
- Pachka: Jesus!! Kochefina!! Zer dun??
- Kochefi: Ene....Gizon....gaia....
- Pachka: Zer zaio zerbeit errekontru gertatu? Ala,hil da bederen???
- Kochefi: Hori balitz bada!...Nahiago....ko....nuen... hi...hi...hi....
- Janama: Gaichoa,ez haila holaka!!ichil hadi!!
Kochefi: Zer? Hi...utzi??
- Pachka: Zer? Hi...utzi?? Zer egin daun??Mintza hadi!!
- Kochefi: Joan da....Hi....hi....hi....
- Pachka: Zer? Hi...utzi??
- Kochefi: Hori baizik ez balitz!!!Hi...Hi....
- Pachka: Zer behar dut aditu? Erran badal!
- Kochefi: Uztea berdin zaut,bainan...
- Pachka: Bainan zer??
- Kochefi: Ene sos guziak galdu ditut!!
- Pachka: Ah! Jainko maitia!!
Aita sartzen da:
- Manech: Zer duzue??Zer gertatzen da?
- Pachka: Gaicho haurra!!Gizon gaia utzi du eta..
- Manech: Hori duna?? Ez haila holaka!!!izanen dun bertze bat.
- Pachka: Bainan zaude!!Bere irabazi guziak johan dazko!!
- Manech: Bainan ba beldurra,zerbeit holako gertatuko zela.Ez eni aipa
intres izariz goitikoak.Badute heiek zerbeit ziliporta tzar!!
- Kochefi: Ez zen batere bankoko empleatua;gezurra zuen.
- Janama: Beharrik ezkont aitzin ezagutu dun!!
- Pachka: Hik erran!!
- Kochefi: Berenitchura eder eta elhe legunekin, ohoin tzar batzu ziren
hiruak.Gure irabazi guziak klikatu dauzkigute eta gehiago dena,
Mado,ez dakigu zer bilhakatu den!!Ilhabetze bat baino gehiago
falta dela!!
- Pachka: Oi! ei! ai! ei! zer izigarrikeria!!
- Kochefi:Lulu eta ni Dauvilles ginelarik,gertatuade da.Haren etchekoek
berririk ez izanez,asaldatu dira eta jin Pariserat . Parte eman
dute polizari....Denetan cherka,bainan Mado nihun ez ageri!!
- Pachka: Holako izigarrikerien ondotik,diruaren galtzea,deusik ez
zautan! Hi bederen hemen hiz!!
- Kochefi: Madoren etchekoak,zozotuak bezala ziren!!
- Pachka:Zer zioten orduan,zuen adichkide heiek?

Kochefi: Bazterrak higitzen hasi bezain laster, gure bilagarroak airatu!
Izan niz bankoanene ene sosaren ondotik, bainan, han ere, ez
ezagutzen Alain Kervanoé.

Pachka: Zer aitzineko!

Kochefi: Eta oray, hirur urtheren buruan, sos erdi bat gabe niz!!

Manech: Eginen dinau ba zerbeit; denak elgarrekin lanean ariz,
hemendik aitzina.

Maiena sartzen da.

Maiena: Hor hintzana, J0?

Kochefi: Ez nun gehiago, J0.. Zozokeria horietarik, sendatua nun!! Asea
nun hiriaz eta han kausitzen diren jende faltsu tzarrez!!

Maiena: Gaichoa! Zer hi, hire gizon gaiak?...

Kochefi: Ene gizon gaia pollita zunan!! Zer da mahain hunen gainean?
Haren potreta?? (Hartzen du, urratzen eta botatzen.)
Horra, ez dut gehiago haren itchuzarik ikusi nahi ez eta ere
hartaz mintzatzen aditu nahi!!

Manech: Eta orai, hemen egonen hiz gurekin, dudarik gabe??

Kochefi: Segurki!! batere dudarik gabe! bertze gochotasunean biziko
niz zuen artean!

Maiena: Parisen uzteak ez dauna dolu eginen?

Kochefi: Ah, ez!! hango bizi herratua, zer den, ez dakizue!! Espantuak
haundi ginituen ba! bainan bethi kalupan, lehertuak, denetarat
buru ezin eginez!!

Janama: Eta hango soldata haundiak??

Kochefi: Dakizula irabazarazten zautatela!! Denak ene gain: Jateko
prestatze, etchearen garbitze, joste, lisatze, oihal churitze,
zilintza bat bethi alha, eta hari ihardesteko, jo esknin, jo ezker,
noiz nahi etchea bestalierrez bethea, eta zer bachera metak
ikutzeko! Segur, hilabethearen buruan ez nuela soldata ebatsia!!

Manech: Uste ninan btoin bat zapatu edo itzuli eta, denak berak egiten
zirela??

Kochefi: Asko ba hala egiten ziren eta beharrik!! bertzenaz, ez nintzan
sekulan helduko!! Hola ere, hola ere, lanik aski.

Janama: Holako bizi herratuan, nola kausitzen zinuten besta egiteko artea?

Kochefi: Aratsetan, batzuetan, untsa oherat johan nahiak, ustez zerbeit
huts egiten ginuen ez elgarretaratuz.... Eta aitzina, handik
landa, zazpi estay behar ginituen oraino idan gure ganberetarat
joaiteko, ez baizen ba ascenseurrik.. Eta zer ganberak!! Airerik
gabeko korzila hertsia batzu! Zombeit aldiz, ez ginena eskalerretan
jartzen, ezin helduz??

Janama: Lehen toki hartan, ez hin holakorik??

Maiena: Han egon bahintz, Eskualzarren eta=han=kausitzen=diren biltzarran
eta han kausitzen diren laguneri jarraikiz, ez zaunan holakorik
gertatuko.

Kochefi: Egia, bainan, hor harat joaiteaz geroz, libertateaz gira gose/..

Pachka: Halere, ez dun bederen osagarria galdu.

Kochefi: Ez, bainan jakizula badutala pausatzearen beharra!!

Maiena: Untsa pausa hadi, gero lanari lotzeko gogotik.

Kochefi: Iku siak ikusi, lehen baino gogotikago ariko naiz, segur!!

Janama: Eta gero, gure Maienaren gisa, hemengo mutiko langile eta series
batekin hartuko dun etcheareh segida.

Kochefi: Gaizoak! Hauieri bederen, fida ditake, leialak eta onak baitira!

Maiena: Egia behar daunat erran: sosak soste, atsegin dinat gauzak
hola itzulirik.

Jana: Gertakari kaatsa bezain baliosa! Biziak badauzka kaska idor
sendatzale batzu. Orhoit zireztea gure Kayetere, nola diru galtze
haundi batek sendatu zuen bere pariatzeko biziotik?

Pachka: Horiek oro, egiak, eta haundiagokoa ere gertha zitaken, bainan
egiaren erraiteko, eni, kapital haundi haren galtzeak, chimiko
egiten!!

Kochefi: (Eskua amaren pausatuz amaren besoaren gainean): "Eni ere,
ba ama!!

Pachka: Ah! beha zan, sal zan erhaztun eder hori; diru pochi bat eginen
dun!

Kochefi: Erhian duta oraino? Ene est asalduran ahantzia nuen!! Hunat
jin aitzin, saldu nahi izan dut, bainan joierian erran dautate
faltsua dela!

Pachka: Oh! nori behar zen holakerik gogoratu??

Kochefi: (Chimindeyrat botatuz): Erre, suutsi bedi hori eta horrekin,
orhoitzapen tzar gwe guziak!!

Maiena: Egia dun! eta oray, pasatuak pasatu, loth gaiten elgarrekin
choko huntako bizi moldeari.

Kochefi: Ah ba! Ez eni aipa gehiago hirirat joaiterik! asea niz
hangon faltsukeriez eta lanjerrez.

Pachka: Nihaur ere, gertakari izigarri horier pentsatzean, oilo larru
bilhakatzen nun!!

Kochefi: Orai ni hemengoa, dena hemengoa!!

Pachka: Hemengoa eta gurea, gure Kochefinal!!!

FEN

RIDEAU.